

XIX. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaiak, mahaiburu gisa Jose Antonio Pérez Gabarain alkate jaunak, eta Ana Urkiza, Jose Inazio Basterretxea, Arantxa Urretabizkaia, Agustin Errotabehere eta Aitor Zuberogoitia kazetari eta idazleek osatu dutenak, idazkari lanetan, eta, beraz, hizpidez baina boturik emateko aukerarik gabe hurrenez hurren Rosa Okaritz eta Jon Unanue udal teknikariek jardun dutelarik, aho batez adostu du ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

Hemeretzi urte dira lehenengoz Rikardo Arregi Kazetaritza Saria antolatu zuenetik Andoaingo Udalak, eta esan liteke sari hau jaio ere jaio zela euskal kazetaritzak bere ibilbidean izan dituen bidegurutze oparoenetako baten erdian: euskal telebista eta irrati publikoak artean jaioberri baino ez ziren; orduantxe hasi zen indarra hartzen ia Euskal Herri euskaldun osora zabalduko zen euskarazko tokiko prentsaren fenomenoak, euskarazko hedabide klasikoak, bai paperezkoak bai irrati-uhin bidezkoak bere burua garai berrietara egokitzeko erronkaren aurrean zeuden, eta egitasmo berri batek, euskarazko egunkariarenak, euskal gizartean alderdi askotariko zurrunbiloa sortua zuen ordurako.

Bidegurutze hartan jaioa, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren xede nagusia euskarazko kazetaritza prestu eta modernoa bultzatzea izan da, hura eragitea, euskal kazetaritzaren ibilbidean bere kriseilu apalaz argi apur bat

ematea bikaintasunaren eta berrikuntzaren xerkan, maiz bidegurutzetik bidegurutzera labirinto bihurtu zaion bide horretan biderakusle gertatu nahian.

Saria berrikuntzaren eta bikaintasunaren xerkan etorri dela adierazi dugu, eta berrikuntza usu hazi berriaren orpotik etorri ohi da, kazetaritzan berrikuntza kazetari berriaren kemenaz eta ilusioaz.

Kazetari Berriaren atalarekin helduko diogu, bada, sari banaketari.

1.- **“Kazetari berria”** ataleko saria, 3.000,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 27 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Aurtengo irabazleak honako merezimenduok ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiaren iritziz:

- ✓ Sendotasun profesionala eta kazetari maila aberatsa erakutsi ditu. Idatzi dituen erreportajeetan jorratu duen lanketa maila bereziak handiagotu egiten du bere lanaren kalitatea.
- ✓ Kontalari sena aitortu behar zaio. Estilo naturala eta zuzena darabil irakurlearekiko. Hizkuntzarekiko arreta berezia erakusten du, berba eta esapideen aukeraketan. Gainera, testu osoaren barneko kohesioari heldu egiten dio, eta hitzek islatzen duten sakontasuna baliatuz gai gordinen inguruko sentsibilitateari eta konpromisoari eutsi egiten die.

Merezimendu horiek guztiak aintzakotzat izanik,

*Sariduna: **Mikel García Idiakez** jauna.*

Saritutako lana: 2006ko ekainetik 2007ko maiatzera bitartean Argia aldizkarian argitaratutako hiru erreportaje.

2.- “*Epaimahaiaren Sari Berezia*”, diplomaz eta 4.000,- euroz hornitutakoa. Honen bitartez Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiak, kazetaritzak urtebetean eman duen uztan bereziki azpimarragarritzat jo duen lana saritu nahi du, kazetaritzarentzat estilo ausarta eta berritzailea erakar lezakeena, sari nagusiaren bikaintasunera iritsi ez arren arrasto nabarmena utzi duena epaimahaikideengan.

Epaimahaiak, aurten sarituriko lanak aintzatespen hori merezi duela iritzi du, ondorengo merezimenduengatik:

- ✓ Oso formato bereziko irratsaioa egiteagatik, errealitatearen aurrean bestelako irakurketa eskainiz, ikusmolde berria aurkeztuz, orijinala. Sarituarena ikertzeko senak eta jakin-minak ahalbidetzen duten kazetari tankera berriztatzailea izatea.
- ✓ Musika-doinuak eta kanta, letragile jarduna eta berriemailearena uztartzea, azterkizun dituen gaiak jorratzean oso maiz umore ukitua emanez.

Aurten epaimahaiaren Sari Berezia jasoko duena: **Josu Martínez Martínez “Ostegunak uhinetan kantari” lanagatik.**

Aipatutako lana, 2006ko ekainetik 2007ko maiatzera bitartean Euskadi Irratiko “Arratsaldekoa” irratsaioaren barruan eskainia da.

3.- XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko “Sari Nagusia”, diplomaz, 9.000,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurraz hornitutakoa. Iritsi gara, beraz, urtebeteko euskal kazetaritzaren uztan bikaintasuna, profesionaltasuna eta heldutasuna saritu eta eskertzen dituen sarira. Honen bidez ebatzi ohi du epaimahaiak bere iritziz euskal kazetaritzak bidean aurrera egin ahala zedarri gisa finkatu behar dituen jardunak, kazetaritza idatzikoak izan zein irrati, telebista eta beste edozein bitarteko baliatuz zabaldurikoak.

Irratsaio bikain bat izan du aurten azterkizun epaimahaiak, eta hauek dira aintzatetsi dituen merezimenduetako batzuk:

- ✓ Sarituak bere irratsaioetan egundoko abilezia erakusten du komunikazio hurbilari eusteko, solaskideak erraz bereganatzen ditu eta ukitu hunkigarria ematen dio elkarrizketari.
- ✓ Elkarrizketa landuak eta ongi bideratuak eskaintzen ditu entzuleen gozamenerako. Saio orekatuak jorratzen ditu, molde zirikatzaile eta askeagoa hartuta; tankera ausarta eta berriztatzailea ari da zabaltzen bere jardun bikainean.
- ✓ Literatura obren zabaltzaile prestua, gero eta baztertuagoa den genero honi oso tratamendu duina ematen dio eta entzuleari erakargarri egitea

lortzen du. Letra idatziaren muga gainditurik ahots ozen eta bizia ematen dio literatura testuari.

Sariduna: **Arantxa Iturbe Maiz andrea.**

Saritutako lana: 2006ko ekainetik 2007ko maiatzera Euskadi Irratian egiten duen "Arratsaldekoa" irratsaioa.

4.- Ohorezko Aipamenari helduko diogu jarraian. Ohorezko Aipamena norabide ezberdinetan erabili izan du Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren ibilbidean zehar garaian garaiko epaimahaiak. Batzuetan, bizi osoan euskarazko kazetaritzan egindako ibilbidea saritzeko; besteetan, oso gauza ohargarriak azpimarratzeko.

Aurten, epaimahaiak euskarazko kazetaritza modernoaren iturbururaino jo nahi izan du, Frankismoaren zulo beltzean aitzindari gutxi batzuek euskarak berezko eta berriazko kazetaritza izan zezan ahalegin itzela, eta sarri ahalegin arriskutsua, egin behar izan zuten garaietaraino. Orduz geroztik euskarazko kazetaritzak ibilbide luzea egin du, berrogei urtetik gorakoa, eta bide luze bezain korapilatsua, bide hori behin eta birritan itxi, eragotzi, itsutu, ezkutatu baitzaio, euskal prentsaren eragile haiek benetako labirinto batean barrena bailebiltzan: zentsura, debekuak, mehatxuak, arazo ekonomikoak, itxierak... Hamaika arazok benetako labirinto bihurtu dute euskarazko kazetaritzaren bilakaera azken berrogeita hamar urteotan. Labirinto horretan arazoak eta arriskuak ez dira izan beti, gainera, berehala antzeman edo erraz ezagutzekoak: Franco hil ondorengo haize berritzaileen zirimolan, euskaldunok gure buruari

gogorarazi behar izan genion euskal prentsa euskaraz egindakoa zela, euskaraz landutakoa, iazko edizioan aldarrikapen haren hogeita hamargarren urteurrena bete zenean gogora ekarri genuen bezala.

Labirinto luze horren hasierako aitzindari bikain haietakoa izan genuen sari honi izena eman zion Rikardo Arregi andoaindarra, euskal kazetaritza Europan indarrean zen kazetaritzaren molderik berritzaileenetara erakarri nahi izan zuena, eta haren lankide, lagun eta bidaide gaur sarituko dugun ikerlari, idazle eta kazetari foruar-usurbildarra.

Izan ere, 1960ko hamarkada zail hartan, *Jakin* ekimenaren baitan pentsamendu unibertsalaren euskal jakintza sortu eta aldizkaria argitaratzeari heldu zitzaionean, foruar gazte batek gogotik ekin zion erronka itzel hari, eta *Jakin* aldizkariak lehen krisialdia bizi izan zuenean hura berbideratzeko uhalak esku artean hartu eta, esan liteke geroztik, ez dituela askatu, ez *Jakinen*, ez eragin, zuzendu edo sortu dituen gainerako kazetaritza proiektuetan ere. Labirinto luze horretako ibilbide neketsuan, gaurko sarituak euskal kazetaritzak gainditu behar izan duen hamaika traba, oztopo, galerazpen, arazo eta okerreko liluratik aitzin, euskal kazetaritzari bidea zabaltzen eta erakusten ahalegin itzela egin du, lan bikaina euskal kazetaria labirintoan gal ez zedin.

Beraz,

- ✓ Sariatuari, gaur egungo euskal pentsamoldearen ikuspegitik, aitzindari, aztertzaile eta bultzatzaile izatea aitortu behar zaiolako.
- ✓ Kazetari edo zuzendari, bakarka edo taldeka aritua, euskarazko prentsaren sortzaile adoretsua dugulako.
- ✓ Berak bultzaturiko ekimenen artean, euskarazko prentsak eman dituen ekarpen garrantzitsuenetakoak ditugulako.
- ✓ Berak jorratutako ibilbideak eta plazaratutako ikerketa eta adierazpenek kazetarien askatasunaren ikur eta euskal kazetaritzarentzat ezinbesteko erreferentzia bihurtu dutelako.
- ✓ Hitz gutxitan, euskal kazetaritza berriaren bitartez euskaldunoi mundua ulertzeko lan-tresnak eskaini dizkigulako.

Merezimendu horiek guztiak aintzakotzat harturik, *XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren Ohorezko Aipamena* **Joan Mari Torrealdei Nabea** jaunari ematea erabaki du Epaimahaiak.

Honaino, bada, *XIX. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**, epaimahaikideok ontzat eman eta gaur sinatu duguna, Andoainen, bi mila eta zazpiko ekainaren hogeita hamarrean.

José Antonio Pérez Gabarain,

Ana Urkiza Ibaibarriaga,

Jose Inazio Basterretxea Polo,

Arantxa Urretabizkaia Bejarano,

Agustin Errotabehere Etxeberri,

Aitor Zuberogoitia Espilla,

Jon Unanue López,